

Busturialdeko hizkera guztiak ikasgela berean

Ibilaldia ez dadila bakarrik Gernikarako izan, eskualde osorako izan dadila. Esan eta egin. Bagilaren 1erako Gernika-Lumoko Seber Altube ikastolak antolatu du Bizkaiko ikastolen jaialdia, baina Busturialdea batuko dute Euskararen bihozferaren barruan: Urdaibaiko biosfera naturala eta Busturialdeko euskara, alegia. Bien ezaugarria delako dibertsitatea, naturgunearena eta eskualdeko 20 herrietako euskalkiena.

| MARIJO DEOGRACIAS |



Seber Altube ikastolan 600 haur-gazte ari dira ikasten eta 150 Gernika-Lumotik kanpokoak dira. Ondorioz, Busturialdea eskualdeko euskararen aldaera ia denak entzun daitezke ikastolako jolastokian. Argazkian ikasleak Ibilaldiko jantziak elegante asko erakusten.

MENDEBALDEKO euskalkiaren barruan erdiguneko azpieuskalkia egiten da Busturialdean, baina herri batetik bestera aldaera asko batzen dira eta ia guztiak entzun daitezke Seber Altube ikastolan. Izan ere, Bermeokoak izan ezik, eskualde guztiko neska-mutikoak ari dira

ikasten Gernika-Lumoko ikastolan. “Bakoitzak bere usaindun euskara dakar, baina askotan ez dira konziente eurek dakarten zer horregaz”, diosku ikastolako euskara irakasle Jon Andoni Uriartek. “Galdetuta zuek zelan esaten duzue gaztelaniazko ‘ir’, Ibarrangeluko

batek ‘joan’ esaten dizu, ohartu barik euren etxean ‘yun’ esaten dutela”, jarri digu adibide irakasleak. Euskalki jabeak izanik ere, euskara estandarrean aritzeak euskalkia alde batera uztea eragiten du eta hori neska-mutikoengan igarri dute. “Ikastolara datozenean tekni-

kotu egiten dira. Euren euskara homogeneizatu egiten da, ez bakarrik eskolaren edo estandarren eraginez, baizik eta euren artean gehien entzuten duten hori egitera jotzen dutelako” diote Uriartek eta ikastolako zuzendari Roberto Arteagabeitiak. Hori dela eta, Ibilaldiaren aitzakian, Busturialdeko euskararen aniztasuna ikasgeletan jorratzeko tresna abiatu dute. Paperezko formatuan batetik eta webgunean bestetik. Ikasleek, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek, 4-5 saiotan, euren euskalkia lantzeko aukera izango dute. Proiektuaren asmoa da hizkuntzaren aberastasuna era dibulgatiboan jasotzea eta ikasleak horren garrantziaz jabetzea. Horretarako hainbat ariketa praktikoko osatu dituzte, EHUKo EUDIA Euskararen Bariazioa Aztertzeako Ikerketa Taldearen laguntzarekin. Eurek hartu dute irakasleentzako materiala era sintetiko batean egituratzeko ardura. Eskualdeko euskararen ezaugarri nagusien gida moduko bat osatu dute, herri bakoitzaren aldaera nabarmenenak identifikatzen laguntzeko.

Izan ere, ikasleek euren zaharrei egingo dizkieten galderen bidez, hainbat ariketa egin beharko dituzte eta horretan lagunduko diete irakasleek. Garrantzitsutzat jo dute hasieratik irakasleentzako materiala osatzea, “irakasle denak ez baitira adituak horretan eta eurentzako laburpen teoriko bat, edo irakasleentzako gida, prestatzea garrantzitsutzat jo dugu, herriak elkarrengandik bereizten dituen ezaugarriak

nabarmenduz”, azaldu digute. Hala ere, Seber Altuben ari diren 54 irakasleak “euskalki jabeak gara, batek ‘doa’, besteak ‘due’ eta hirugarrenak ‘doie’ esaten badu ere”, dio Arteagabeitiak.

Gernikatik Busturialdera

Seber Altube ikastolan ikasten duten 600 ikasleetatik 150 Gernikatik kanpokoak dira, eskualdeko gainerako herrietatik datozenak. Hori kontuan izanik, pentsatu dute Busturialdeko euskararen aniztasuna ikasgeletan jorratzeko material

Euskalki jabeak izanik ere, euskara estandarrean aritzeak euskalkia alde batera uztea eragiten du eta hori neska-mutikoengan igarri dute

didaktikoa ezin dela Seber Altubera mugatu eta proiektua askoz ere handinahiago bihurtu dute: herriko gainerako ikastetxeetara eta eskualde osoko beste eskoletara zabaltzea, alegia. Kalkulatu dutenez, eskualde osoan, maila horietan, (LH 5-6 eta DBH 1-2), 1.400-1.500 ikasle inguru ari dira. Horregatik, eskualdeko udal guztiekin harremanetan jarri dira proiektua aurkezteko eta babesa eskatzeko. Ibilaldiko prestaketei erantsitako lan gehigarria-edo. Baina gustura daude Seber Altuben. “Harrera oso ona izan dugu udale-

rri guztietan eta espero dugu gainerako ikastetxeek ere erabiliko dutela materiala”, dio ikastolako zuzendaria.

Aniztasun horri esker, gainera, baikorrak dira proiektuaren sustatzaileak. “Ikasleek oso gertu daukate eskualdeko herri bateko baino gehiagoko senideren bat. Nekez dira guraso biak gernikarrak, beraz, informatzaileak topatzeko oso erraza izango da eta gela bakoitzak eskualdeko hainbat herriakoak bilatzeko arazorik ez da egongo”, diosku harro euskara irakasleak.

Kontuak kontu, maiatzaren 29an aurkeztuko dute proiektua Busturiko Madariaga dorrean: paperean 500 ale aterako dituzte eta egun horretan jarriko da abian webgunea ere. Ikasleek egiten dituzten elkarriketak, bideoak eta eskualdeko euskalkiaren gaineko bilduma sareara igotzeko aukera izango dute, irakasleek laguntzarekin. Egun horretatik aurrera, eskualdeko ikastetxe guztiei eskainiko zaie proiektuan parte hartzeko aukera, hau da, egingako materiala erabiltzea, eta webgunera batuko diren lekuan lekuko euskalkiaren adibideak gehitzea. “Publiko, pribatu, kontzertatu izan berdin digu. Busturialdeko hizkuntzaren aniztasunaren alde lan egiteko aukera ahalik eta zabalena izan dadin gura dugu”, aitortu digute Seber Altubekoek.

13.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak eta hortik aurrera diru gehiago batuz gero, luzatu egingo litzateke proiektua, paperezko formatuan zabalkunde handiagoa emanez eta hitzaldi edo saioak eginez, lekuan-lekuan. ■



Eako herria ere euskararen Bihozferan!

 **Eako Udala**
www.eakoudala.net



IBILALDIA
GERNIKA-LUMO 2014
euskararen bihozfera